Espediente moetea: Administrazino kontratazinoa
Kontratua: Tokiko telebistaren zerbitzu kontratua. Prozedura irekia.

"BERMEOKO UDALEKO ERRETRANSMISINOAK EGITEKO ETA TOKIKO TELEBISTA IZAN DAITEN, EUSKERAZKO TOKIKO TELEBISTA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Bermeoko Udaleko erretransmisinoak egiteko eta tokiko telebista izan daiten, euskerazko tokiko telebista zerbitzua kontratatzea.

2.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Bermeoko Udaleko erretransmisinoak egiteko eta tokiko telebistea izan daiten, honako honeek egin beharko dira:

1. Herriko informazinoa emon, era honetan:
   - Udaleko Osoko Bilkurak emon, horretarako egingo diran grabaketen bidez. Era berean grabaketa guztien kopia emongo jakoz Bermeoko Udalari, ekoizpena egin eta astebeteko epean.
   - Herriko informazino orokorra ugaldu: egintzak, jardunaldiak, kultur programazinoa, e.a. Astelehenetik barikura, goizero emongo da horreen guztien barri, Udaletik bialdutako bando, idatzizko iragarki, prentsa ohar edo bestelakoen bidez.
   - Era berean, herrian izandako prentsaurrekoen barri emon.
   - Astean behin, herriko Alkateareki edotako bestelako Udal ordezkariekin elkarrizketa egin eta emon, Udalaren informazinoa zabaltzeko.
   - Zaindarien eta auzoko jaien jarraipena egin eta Bermeon antolatutako jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak eta bestelako egintzak agertuko dira. Kasu honeetan, alkarte ezbardinetako solasaldia edo erreportaia egingo da, beti be Alkatearen oneritxiagaz.
   - Kirol ekitaldien kasuan, emoitzen barri emon ez eze, ekitaldi batzuk be emon beharko dira telebistan.

   Horreek emonkizun guztiak denpora muga barik emongo dira, astean zehar, ekitaldi bakotxaren beharrizanetara egokituta.

2. Euskerearen alde antolatzen diran kultura, kirol eta bestelako ekintzen bozeramailea izan.

CSV: 07E7000BF9CD00F9X8P0W2Z7M9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000BF9CD00F9X8P0W2Z7M9

Sinadurea eta datea

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/03/2023 11:56:13

EXPEDIENTE :: 2023KON_IRE_0005

Datea: 17/02/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3. Euskerearen erabilereari eta normalizazino linguistikoari lehentasuna emon beti. Horretarako, ahal dan heinean eskualdeko bizkaierea erabilteko konpromisoa hartuko da. Baina, Bermeoko Udalari jagokonez, hau da, udaleko barriak emoterakoan, udaleko ordezkariei alkarrizketak egiterakoan, eta udalagazko hartu-emonetan, e.a., euskerea baino ez da erabiliko, eta ez da itzulpenik egingo.

4. Herritarrak informatuta egon daitezan, Udalak martxan ipinten dauzan Parte Hartze prozesuen lagungarri moduan, hilean behin, gehienez, saio bereziak egiteko eskatu ahalko da, Udalak proposatzen daua(za)n gai zehatz bat edo gehiagori buruz. Saio horretan, Udalak egoki ikusten dau(za)n pertsonak edo pertsonek hartuko dabe parte, gaiaren inguruko argibide guztiak emoten.

5. Aitatutako guztiak aparte, Bermeoko Udalak, 50 publizitate iragarki labur (cuña) sartzeko aukera izango dau, dohainik, urteko. Hortik gorakoak, indarrean dagozan tarifei %50eko deskontua aplikatuta (ekoizpena eta BEZ barne) ordainduko dira.

3. – BALIABIDEAK

Zerbitzu hau emoteko, behar besteko baliabide tekniko eta logistikoak euki beharko dauz esleipendunak, eta baita be langileria baliabideak.

Osoko Bilkuren grabaketari jagokonez, gitxienez kamara bat eta berau manejatzeko egokia dan teknikaria bideratuko dira, eta soinua grabatzeko mikrofono nahikoak ipiniko dira.

Bardin jardungo da erretransmititu beharreko bestelako ekintzetan.

4.- GRABATUTAKO MATERIALEAREN JABETZA ETA ERABILERA

Grabatutako materialea esleipendunaren jabetzakoa izango da. Hala ere, Bermeoko Udalak, ezelako kostu gehigarri barik, material horrren kopia eduki eta erabiltzeko eskubidea izango dau egoki ikusten dauan moduan, hala nola: web gunean eskegita, sare sozialetan ipinita, edo bere jabetzako besteko elementu teknologikoetan ipinita ikusgai.

CSV: 07E7000BF9CD00F9X8P0W2Z7M9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SEMMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000BF9CD00F9X8P0W2Z7M9

Sinadurea eta datea

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/03/2023 11:56:13

EXPEDIENTE :: 2023KON_IRE_0005

Datea: 17/02/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia